

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Hamar langile baino gutxiago dituzten Vitoria-Gasteizko enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen 2020ko programa ebazteko erabakia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko urriaren 9an emandako ebazpena, zeinaren bidez 2020an hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen 2020ko deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

“Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 5ean egindako bilkuran onetsi zituen hamar langile baino gutxiago dituzten Gasteizko enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen 2020ko programaren berriazko oinarriak eta deialdi publikoa — 2020ko ekainaren 29ko ALHAO, 72 zk.—, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 450.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko udal aurrekontuko 08.23.2411.4. 8967 partidaren kontura.

Deialdiaren oinarri arautzaileetan eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaituta, Enplegu Ataleko teknikariek, 2020ko urriaren 6ko idazki bidez, jakinarazi zuten guztira hogeita hiru (23) eskabide erregistratu zirela epe horren barruan, baita eskatutako laguntzari borondatez egindako uko bat ere.

“Aztertze-balioztatze-, hautatze- eta jarraipen- batzordeak” 2020ko urriaren 8an egindako bilkuran behar bezala aztertu eta eztabaidatu zituen eskabideak. Bertan, deialdiko baldintzak betetzen zizutela konprobatu, eta oinarrietan ezarritako balorazio irizpideen arabera baloratu eta hurrenkeran jarri ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari igorri zitzaion deialdiaren ebazpen-proposamena, zeinek hala jasotzen zuten: aurkeztutako borondatezko ukoa onestea; erregistratutako hama-bost (15) eskabide ukatzea baldintzak ez betetzeagatik, eta zazpi (7) laguntza ematea, eskabide bakoitzean lortutako puntuazioarekin bat.

Deialdi honetan ezarritako prozedurarekin bat, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 5ean eskumenak eskuordetzeaz hartutako erabakiaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 5eko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau

Ebatzi du

Lehena. Onartzea B01539154 IFZ-ko enpresak –M. del C. L. R. langilea dela eta– hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoari egindako borondatezko ukoa.

Bigarrena. Hamabost (15) eskabide hauei ukatzea hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen 2020ko udal programako laguntza ekonomikoa, deialdian ezarritako baldintza zenbait betetzen ez dituztelako:

Zenbakia	Erregistro data	I.F.Z./N.A.N	Kontratutako pertsona	Adina	Sexua	Lanaldia	Ez emateko arrazoiak
1	2020-07-21	B01297399	J.C.V.	22	Gizona	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
2	2020-07-30	J01521640	A.M.V.	24	Gizona	Osoa	4. oinarria ez betetzea: eskatutako alditik kanpoko kontratua (alarma egoera amaitu aurretik egina, eta enpresa ez da ABEEen egon)
3	2020-08-27	44674974G	M.A.Z.	49	Emakumea	Partziala	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
4	2020-08-27	72822797J	O.A.G.	26	Emakumea	Partziala	4. oinarria ez betetzea: pertsona berriz kontratatzen da, baina lanaldi murriztuan, alarma egoeraren aurrekoaren aldean.
5	2020-08-20	71348005G	S.R.A.	53	Gizona	-	14. oinarria ez betetzea: ez ditu nahitaezkoa agiriak aurkezten, eskabidea bakarrik
6	2020-09-09	B01567445	A.B.O.de Z.L.	47	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
7	2020-09-09	B01567445	C.A.P.	25	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
8	2020-09-09	B01567445	M.C.M.	41	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
9	2020-09-09	B01567445	N.B.A.	29	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
10	2020-09-09	B01567445	Y.M.F.	28	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
11	2020-09-10	B01564426	M.E.I.	44	Gizona	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
12	2020-09-10	B01564426	M.K.M.S.	31	Gizona	Osoa	4. oinarria ez betetzea: eskatutako alditik kanpoko kontratua (alarma egoera amaitu aurretik egina, eta enpresa ez da ABEEen egon)
13	2020-09-10	B01312354	J.R.P.	31	Gizona	Osoa	4. oinarria ez betetzea: eskatutako alditik kanpoko kontratua (alarma egoera amaitu aurretik egina, eta enpresa ez da ABEEen egon)
14	2020-09-11	16247217V	A.M.M.R.	56	Emakumea	Osoa	2-4 oinarriak ez betetzea: ez zuen enplegua galdu
15	2020-09-11	B01463462	M.B.P.	54	Gizona	Osoa	4. oinarria ez betetzea: eskatutako alditik kanpoko kontratua (alarma egoera amaitu aurretik egina, eta enpresa ez da ABEEen egon)

Hirugarrena. Eskabideek deialdiko baldintzak betetzen zituztela egiaztatuta, eta balorazioa egin eta hurrenkeran jarrita (9.oinarria), hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko laguntza hauek ematea, adierazitako kopuruan, egindakoa justifikatzeko baldintzapean. Laguntzak guztira 12.800,00 euro dira.

Zenbakia	Erregistro data	I.F.Z/N.A.N.	Kontrataturako persona	Adina	Sexua	Lanaldia	Puntuak	Laguntzaren zebatekoa
1	2020-07-30	B01574227	J. C. F.	62	Gizona	Osoa	80	2.000,00 euro
2	2020-09-11	B01463462	A.M.T.	60	Gizona	Osoa	80	2.000,00 euro
3	2020-09-11	A01038801	N.A.B.	39	Emakumea	Osoa	60	2.000,00 euro
4	2020-07-30	B01574227	L. F. V. L.	44	Gizona	Osoa	50	2.000,00 euro
5	2020-09-11	F01484880	E. P. A.	37	Gizona	Osoa	50	2.000,00 euro
6	2020-09-11	B01449032	A. R. E.	27	Gizona	Partziala	20	1.800,00 euro
7	2020-07-30	B01574227	M. A. R.	27	Gizona	Partziala	0	1.000,00 euro

Laugarrena. Emandako laguntza guztien zenbatekoa (12.800,00 euro) 2020ko udal aurrekontuko 08.23.2411.4.8967 partidaren kontura jasota uztea (6. oinarria), eta horiek ordaintzea.

Bosgarrena. Udaleko Enplegu Ataleko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Zazpigarrena. Laguntza-eskatzaile guztiei ebazpenaren berri ematea, eta jakinaraztea horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik.

Horretaz gain, aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, egintza eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik. Gerora, azken horren ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan; bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik“

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 15ean

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ*